



■ Biografiak ■

Joxe Agirreren bizi eta bertsoeraz

Bertsolari azpeitiarraren inguruan idatzi dute Joxean Agirrek eta Jexux Muruak

Joxe Agirre, mozketaren maisua

Joxean Agirre
eta Jexux Murua
Bertsolari Liburuak


JOXE AGIRRE bertsolari azpeitiar handiaren bizi eta hamaika bertso bildu dituen biografia kaleratu du Bertsolari Liburuak-ek: *Joxe Agirre, mozketaren maisua*. Egin zuten liburuaren aurkezpena Donostian, eta Joxean Agirre eta Jexux Murua egileekin batera, present izan ziren Agirre bera eta berarekin batera urte luzez, plazaz plaza, jardun duen Imanol Lazkano.

Joxean Agirre arduratu da liburuaren lehen zatia osatzeaz, hitzaurreari eta Izarraizko bertsolariaren bizitzari dagokiona, alegia. Joxe Agirreren bizitzari eskainitako orrialde horietan guztietan, makina bat kontu ezagutzeko modua eman dute egileek: haurtzarotik gaurko egun hauetarainoko ibilbidea jasotzen baitu; alegia, bizitako, jasandako, sofritutako, gozatutako... bi- zipen guztiak. Jakina, bertso-

gintzan eginiko bideak ere protagonismo handia du lehen zati horretan.

«1955ean, 20 urtetik gora zituela, bera baino urte batzuk gazteagoa zen Imanol Lazkanorekin aurrez aurre neurtu behar izan zituen indarrak bertsotan, Izarraizko bere lagunek Landetakoekin hitzartutako norgehiagokan. Apustu giroan, beraz. Ingarukoak bero, baten alde eta bestearen kontra; baina saioa amaitutakoan Imanolek eta Joxek elkarri bizkarretik heldu zioten. Hortxe hasi zen orain bitarteko euren adiskidetasuna eta, hein handi batean, elkarrekin ibilitako bertso-bidea», egin zuen atzera Joxean Agirrek, azpeitiarraren bertso-jardunaren lehen harria kokatzeko.

Joxe Agirrek bertsogintzan dituen ezaugarriak nabarmentzera jo zuen ondoren kazetari eta idazleak: «Bat-batean egiten duen bertsolaria da, ematen eta hartzen dakiena —boxeolari onen tankeran—. Puntutakoan da maisu, erasoan, mozketan... Gaiztakerian eta azkartasunean bikaina. Auzoko bertsolaria da, apustu-gizona, garai



JAGOBA MANTEROLA

Bertsolari eta gizona hobeto ezagutzeko aukera ematen du liburuak.

hartan bertsolaritza ere apustutzat ulertzen baitzen».

Bertsolariaren bizitzaren atal horri buruzko beste xehetasun batzuk ere eman zituen Joxean Agirrek: «Xumea da oso, laua, Joxe ez baita bere buruaz mintzatzearen oso zale. Hala, gauza asko gorde ditu ezkutuan. Baina atal horrek bere bizi-

tzaren gogortasuna islatzen du».

Bigarren zatiaz arduratu da Jexux Murua, Agirrek hamaika bertso saiotan botatako aleak bildu eta hautatzeaz. «Kontuan izan behar da lau belaundaldirekin egin duela topo bidean, oso gai ezberdinak entzun eta jarri dizkiotela... Ahalik eta ikuspegi zaba-

JOXEAN AGIRRE

■ ■ ■ «Bat-batean egiten duen bertsolaria da, ematen eta hartzen dakiena»


IMANOL LAZKANO

■ ■ ■ «Garai bateko bertsoeraren azken katebegia da»

lena ematen saiatu naiz sorta hau aukeratzean. Guztietan nabarmen geratzen da Joxeren bat-batekotasuna, zorrotasuna, zein zirikatzailea eta jotzailea den...».

Imanol Lazkano adiskide eta bertso-laguna ere mintzatu zen: «Garai bateko bertsoeraren azken katebegia da, Basarrik kutsatu gabeko bakarra, lehengo bertsoeraren lekukotasun bizia. Bertsoera zintzokoa, liburuko aleak bat-batekoak dira, batere orraztu gabeak, eta Joxe biluzik ikustea ahalbidetzen dutenak». Agirre plaketan hain berandu zergatik hasi zen argitzeko ere badu azalpenik Lazkanok: «Neu agertu arte bikoterik ez zuelako. Garai batean bikoteka ibiltzen zen bertsotan, eta hasieran horren falta zuen. Bikote polita egin dugu, bateagarriak baikara. Ziur naiz neu gabe Joxe ez zela honaino iritsiko bertso munduan, eta neu ere Joxe gabe ez nintzela horrenbeste jardungo».

Mikel Jauregi
DONOSTIA



BIZKAIA

irratia

*Egunero zuzenean
Durangoko liburu
eta disko azokatik*

Bizkaitik Bizkai osora bakarra!